

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

RIBABELLOSAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Ribabellosa eta Ribaguda herrietako ehiza barrutia eratzeko

Ribabellosako eta Ribagudako kontzejuek erabaki dute "San Juan" izeneko VI-10008 ehiza barrutia berritzea. Ehiza barrutiaren titularra Ribabellosako Administrazio Batzarra da, jabe elkartearen ordezkartzan.

Ehiza barruti horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten.

Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza barrutian sartzeko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Ribabellosa, 2023ko urtarrilaren 26a

Lehendakaria

PEDRO MARÍA BODEGA SÁENZ DE POBES